



KANPOKO CURRICULUM-PRAKTIKEN MEMORIA EGITEKO ORIENTABIDEAK

MEMORIA AURKEZTEA

Praktiken Memoria paperean aurkeztu beharko zaio barne-tutoreari. Ikasleari, bestalde, kopia bat gorde dezala gomendatzen zaio.

Irizpide orokor gisa, non eta barne-tutoreak ez dituen bestelako epe batzuk ezartzen, praktikak amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da Memoria. Eta ezinezkoa izango da praktikak gauzatu diren lauhilekoari dagokion ohiko deialdiko azterketen azken egunetik aurrera aurkeztea.

PRAKTIKETAKO ZENTROAN MEMORIA BERRIKUSTEA

Zentroko praktiketako instruktoreak eskubidea izango du, hala nahi badu behintzat, Memoria berrikusteko, eta behin betikoa aurkeztu aurretik egoki iritzitako zuzenketak proposatzeko. Horregatik, gomendagarria izaten da denboraz ibiltzea hari galdetzean. Nolanahi ere, komenigarria izaten da ikasleak berrikuste-lan hori egin dezala eskatzea praktiketako instruktoreari.

Memoriak Eranskinak baditu (egunerokoak edo auto-erregistroak, historia klinikoaren ereduak, txosten-ereduak, argazkiak edo praktiketako zentroaren bestelako dokumentazioen bat), horiek txertatzeko ezinbestekoa izango da bakoitzaren praktiketako instruktorearen sinadura bidezko baimena lortzea.

DATU PERTSONALEN BABESA

Memorian ezingo da txertatu praktiketako zentroko gaixo/bezero/erabiltzaileen datu pertsonalik, ezta horiek identifikatzeko modua emango duen bestelako datu edo informaziorik ere.

FORMATUA

Praktiken Memoria izango da, hain zuzen, kanpoko praktikak kalifikatzeko barne-tutoreak erabiliko dituen irizpideetako bat. Haren edukia eta forma, biak balioetsiko dira. Ikasleak txosten osotua gauzatzeko duen gaitasuna hartuko da aintzat; alegia, sintaktikoki eta ortografikoki ondo idatzitako eta hartzaileari behar bezala egokitutako txostena. Era berean, ideiak modu txukun, argi eta sintetikoan adierazteko ikasleak duen gaitasuna ere aintzat hartuko da.

Memoriaren formatuari dagokionean:

- Ez du gaundituko 25 folioko luzera, aurpegi bakarrean; Azala, Aurkibidea eta Eranskinak alde batera utzita.
- DIN-A4 paperean aurkeztuko da, koadernatuta.
- Ordenagailuan egina (ez eskuz).
- Times New Roman letra-mota, 12 tamainakoa, 1.5eko lerroartekoa eta 2.5 cm-ko marjinak dituen.



- Siglak erabiltzen diren aurreneko aldian, esanahia zehaztu beharko da.
- Grafikoak, irudiak eta taulak zenbakituta joango dira, eta izenburua izango dute.
- Aipuek eta erreferentzia bibliografikoek APA formatuan joan beharko dute.

EDUKIA

Praktiketako Memoriaren edukiari buruz aurkeztera goazen gidoia orientagarria baino ez da. Edukia aldatu eta egokitu ahal izango da, ikasleak praktikak eta egin beharreko jarduera guztiak gauzatu dituen eremu eta zerbitzu jakinei erreparatuta barne-tutoreak finkatutako gidalerroen arabera.

Nolanahi ere, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Kanpoko Praktikak Arautzen dituen Araudian xedatutakoarekin bat eginda, Memoriak, gutxienez, honako eduki hauek izan beharko ditu:

- a) Ikaslearen datu pertsonalak.
- b) Praktikak zer erakunde laguntzailetan egin dituen eta haren kokalekua.
- c) Esleituta egon den erakundeko zereginen, gauzatutako lanen eta sailen deskribapen zehatza.
- d) Unibertsitateko ikasketak aintzat hartuta, barneratutako ezagutza eta gaitasunekin gauzatutako zereginen balioespena.
- e) Proposatutako arazoen zerrenda eta horiek ebazteko jarraitutako prozedura.
- f) Ikaskuntzari dagokionean, praktikek egindako ekarpenen identifikazioa.
- g) Praktiken ebaluazioa eta hobetzeko iradokizunak.

EGITURA

1. AZALA

Bertan joango dira:

- Izenburua
- Praktikak egin diren zentroa
- Praktiketako zentroko instruktorearen izen-abizenak
- Praktikak zer egunetan gauzatu diren
- Fakultateko barne-tutorearen izen-abizenak
- Ikaslearen izen-abizenak, NAN, maila eta sinadura
- Memoria zer egunetan aurkeztu den

Memoria berrikusita badago eta praktiketako zentroko instruktorearen oniritzia jaso badu, haren sinadura ere azalean jarriko da.

2. AURKIBIDEA orrialdeak zehaztuta

3. SARRERA (gehienez ere orrialde 1)

Oinarrizko informazioa jasoko du: praktikak non eta noiz egin diren (tokia, hilabete-kopurua, ordu-kopurua) eta edukiari buruzko deskribapen labur bat.

4. PRAKTIKETAKO ZENTROAREN DESKRIBAPENA (gehienez ere 4 orrialde)

- Oinarrizko datuak: izena, helbidea, titulartasuna, etab.
- Praktiketako zentroa erakunde zabalago baten zati bada, erakunde horren helburuen eta antolamenduaren deskribapena.



- Zentroaren organigrama.
- Ezaugarri nagusiak: helburuak, nori eskaintzen zaion arreta, zentrorako sarbidea, eskaintzen dituen programak eta zerbitzuak, esku hartzen duten taldeak eta profesionalak, etab.
- Beste zerbitzu eta zentro batzuekiko harremana eta koordinazioa.
- Bestelako informazio garrantzitsua.

5. **GAUZATUTAKO JARDUERAK** (gehienez ere 6 orrialde)

- 5.1. Praktiketan gauzatu diren jardueren laburpena (EZ da egin behar gauzatutako jardueren deskribapen zehatz-zehatza; aitzitik, gauzatutakoaren ikuspegi orokorra eman behar da), tokia, jarduera bakoitzean ikasleari esleitutako helburuen deskribapena eta denbora-banaketa. Bibliografia aztertzeke eta horretan sakontzeke jarduerak txertatuko dira.
- 5.2. Praktika-aldian harremanetan edo lan-lagun izan dituen profesionalak edo zerbitzuak (praktiketako zentroko instruktorea barne).

6. **BALIOESPEN PERTSONALA** (gehienez ere 12 orrialde)

- 6.1. Ikaskuntzari dagokionean, praktikek egindako ekarpena.
Besteak beste, honako hauek: erabiltzaileekin eta bestelako profesionalekin izandako lanbide-harremanean eskuratutako trebetasun teknikoei buruzko balioespena; lan egindako programetatik eta erakundeetatik edo nolabaiteko harremana izandako bestelako zentro, erakunde, administrazio eta abarretatik eskuratutako ezagutza; prozeduren ezagutza; hainbat baliabideren arteko koordinazioaren kalitatea; edo lan egindako erabiltzaileen egiazko ezaugarriak ezagutzea, etorkizunean espezializazio-eremua izan ote daitekeen erabakitzeke. Bibliografia aztertzeke eta horretan sakontzeke jardueren bitartez egindako ikaskuntza ere txertatuko da.
- 6.2. Praktikak gauzatu bitartean izandako arazoak eta horiek ebazteko jarraitutako prozedura.
- 6.3. Autoebaluazioa
Esate baterako, praktika-aldian izandako ibilbide pertsonalari buruzko autoebaluazioa (adibidez, igurikapenak, jarrerak, etab.), lan-eremu horretan jarduteko trebetasun eta gaitasun pertsonalak, edo ezagutu den lan-eremuan lanean jardun ahal izateko bete beharreko prestakuntza-premia pertsonalak.
- 6.4. Eskarmentua zenbateraino den baliagarria ikaslearen lanbide-etorkizunean
- 6.5. Hobekuntzarako iradokizunak
- 6.6. Bestelako iruzkin eta iradokizunak
- 6.7. Praktiken balioespen orokorra

7. **ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK** (APA arauetara jarraituta)

8. **ERANSKINAK**

- **Praktiketako asistentzia erregistroa** beteta erantsiko da.
- Bertan txertatu daitezke, besteak beste, egunerokoak edo auto-erregistroak, historia klinikoaren ereduak, txosten-ereduak, argazkiak edo praktiketako zentroaren bestelako dokumentazioaren bat; betiere, praktiketako zentroko instruktoreak baimendutakoak eta sinatutakoak.
- **Ikerteta-praktikei** dagokienean, artikulua itxurako txosten bat aurkeztu beharko da, honako atal hauek bilduko dituenak: Sarrera, Metodoa (parte-hartzaileak, prozedura...), Emtzak, Eztabaida eta Ondorioak, eta Erreferentzia bibliografikoak.